



Osakidetza

BILBO-BASURTU  
EREGIAKON HAZIETAN ERREGIATU  
ORGANIZACION GANTHER INTEGRATU  
BILBAO BASURTU

## KUDEAKETA INTEGRATUKO POLITIKA

POL-PGI

Berrik.: 04

Eguna: 2023/03/23

1. orria 4tik

# KUDEAKETA INTEGRATUKO POLITIKA BILBO-BASURTUKO ESIA

### BERRIKUSPEN-ERREGISTROA

ALDAKETA	EGUNA	ARRAZOIA
Xede, Ikuspegi, Balio berriak	2017/12/29	2018-2021ko ESlaren Plan Estrategikoa
Aldaketak konpromisoetan	2019/5/22	Konpromisoak egokitzea
Gerente berriak berrikusita	2021/2/17	Gerente berria lanean hastea
Xede, ikuspegi eta balio berriak sartu dira, bai eta testuan zenbait aldaketa egin ere	2023/3/23	2022 – 2025 aldiko Plan Estrategiko berria

**Nork berrikusia:**

**Mikel Mujika Orellanak.** Estrategian Laguntzeko eta Osasun-emaitzak Hobetzeko Unitateko arduraduna.

**Nork onartua:**

**Jesus Larrañaga Garitanok.** Zuzendari Gerente.

Eguna: 2023/03/23

Eguna: 2023/03/23

## 1. SARRERA

### XEDEA

Agerian utzi nahi dugu Bilbao-Basurtoko ESLak bere jardueran duen konpromisoa kudeaketa etiko eta sozialki arduratsuarekin, horren erreferentzia Interes Taldeen beharrak eta espektatibak betetzea izanik. Berretsi egin nahi dugu konpromisoa dugula hobera eramateko bai lan arloko osasun- eta segurtasun-baldintzak bai pazientearen segurtasuna, eta, bestetik, ingurumenarekiko errespetua sustatzeko. Konpromisoa dugu, bestalde, gure arloan berrikuntza eta ikerkuntza bultzatzeko, profesionali kalitateko prestakuntza eskainiz.

### IRISMENA

Politika hau erakundea osatzen duten pertsona guztiei aplikatzen zaie, baita ESLarentzat edo ESLaren izenean lan egiten duten kanpoko enpresei ere (hornitzaileak eta zerbitzuak).

### KUDEAKETA POLITIKA

Hauxe da gure **xedea Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan**: “Osakidetzako erakunde sanitario publikoetatik bat gara, lehen mailako arretako eta ospitaleko arretako zerbitzu integratuak eskaintzen dituen, osasuna sustatzeko eta zaintzeko, bai eta gaixotasunak prebenitzeko, hobetzeko eta sendatzeko ere. Gure identitatearen bereizgarri nagusiak dira arretaren kalitatea, ikerketarekiko eta irakaskuntzarekiko konpromisoa eta profesional bikainen prestakuntza”.

Erantzukizun Sozial Korporatiboa gure izatearen funtsezko osagaia da, erakunde publiko sanitarioa baikara. Gure egunoroko jarduerak berezko dimentsio soziala du berekin, eta, hortaz, ulertzen dugu bereizgarri dituen jarduerak izatez erantzukizun sozialeko jarduera direla, baina, gainera, osasun-alderdia gaingitu egiten dutela. Horregatik lidergoa eta konpromisoa dituen eta ingurunean eragin positiboa duen erakundea gara.

Gainera, gure jarduerak gure ingurunean sortzen dituen inpaktuak minimizatu behar ditugu, bai ekonomian, bai gizartean, bai ingurumenean. Horretarako, gure interes-taldeentzako gai materialak kontuan hartzen dituzten estrategia proaktiboak garatu behar ditugu.

**Ikuspegiaren** bidez, adierazi nahi dugu nola nahi dugun Interes Taldeek gu ikustea, nola espero dugun gure jarduera-eremuko pertsonak/erakundeek/instituzioek gu ulertzea:

“Nahi dugu herritarrengan sortzen duen konfiantzagatik aitortua izatea, eremu hauetan erreferente:

- Gure asistentziaren humanizazioa, segurtasuna eta pertsonalizazioa
- Emaitzak, osasunarenak direnez, hobetzea.



Osakidetza

BILBO-BASURTU  
ERREKUPERO OSASUNAREN ERREKUPEROA  
ORGANIZAZIOAN GANTZIBER INTEGRATUA  
BILBOA ERREKUPEROA

## KUDEAKETA INTEGRATUKO POLITIKA

POL-PGI

Berrik.: 04

Eguna: 2023/03/23

3. orria 4tik

- Gure zerbitzuen irisgarritasuna, arintasuna eta eraginkortasuna.
- Osasun komunitarioaren eta eremu soziosanitarioaren garapena.

Eta hori guztia, erronka horiek lortzeko giltzarri bi dauzkagula, batetik, gure langileen garapen profesionala eta pertsonala, bestetik, azpiegitura modernoagoak eta seguruagoak horniturik egotea ere.”

Gure **Balioak** dira ikuspegia lortzeko gure erakundean finkatuta egon behar duten jokabideak:

- Efizientzia
- Errespetua.
- Gizatasuna.
- Profesionaltasuna.
- Taldeko lana.
- Enpatia.
- Zerbitzuaren kalitatea.

ESlaren helburuen erreferentzia gure Plan Estrategikoaren Erronka Estrategikoak dira; eta, gauzatze operatiboa urteko kudeaketa-planetan dago, horien bidez aztertzen baita betetze-maila.

## 2. PRINTZIOIOAK / KONPROMISOAK

Bilbao-Basurtoko ESiko Zuzendaritzak aurrera bultzatuko ditu zehaztutako helburuak betetzera daramaten ekimen guztiak, horretarako behar diren baliabideak eta prestakuntza emanez eta gure Interes Taldeekin lankidetzeta-bideak ezarriz; hori guztia, indarreko legea betetik eta, ahal dela, harago joanik. Hauek dira, hortaz, **gure konpromisoak**:

- **Politikaren esanahia komunikatzea**, profesional guztiek ulertu eta eraginkortasunez bete dezaten.
- Kudeaketa politika **interesdun alderdien** eskura jartzea.
- **Kudeaketa Sistema bat zehaztu eta ezartzea**, eta Kudeaketa Eskuliburuan jasotzea.
- “**Ziurgabetasunaren kudeaketan**” oinarritutako **ikuspegiak finkatzea**, gure prozesuetan **arriskuak eta aukerak identifikatuz**.
- Erreferentzia-marko bat ematea, dauden sistemetan **helburuak ezartzeko**.
- **Indarreko arauak eta legeria betetzen direla** bermatzea, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.
- **Giza baliabideak eta baliabide materialak** ezarritako eskakizunak betetzera bideratzea, lan-giro osasungarria izatea eta **bezeroen eta interesdun alderdien gogobetetasuna** lortzea.
- Erakundeko **profesionalen segurtasuna eta osasuna bermatzea**. Eta, horretarako: izan daitezkeen lan-arriskuak identifikatzea, ebaluatzea eta kontrolatzea; arriskuaren arabera, osasunaren zaintza espezifikoa egitea; eta, gure Erakundean lan egiten



Osakidetza

BILBO-BASURTU  
ERANTZUKIZUN SOZIALAREN ERAGINTZA  
ORGANIZAZIOAN GARRANTZU INTEGRATUA  
BILBOA ERANTZU

## KUDEAKETA INTEGRATUKO POLITIKA

POL-PGI

Berrik.: 04

Eguna: 2023/03/23

4. orria 4tik

duten pertsonen arrisku psikosoziala interes bereziz kudeatzea, erasoak ebitatzen dituen kultura sustatuz.

- **Prebentzio-jarduera egokia bermatzea.** Horretarako, planifikatu beharrekoak dira kaltea prebenitzeko neurriak eta, bestetik, Erakundeko profesionalen lan-arriskua ebitatu edo murriztuko dutenak.
- Behar diren baliabideak eskaintzea, **kudeaketa-sistema eraginkorra** izan dadin.
- **Langile guztiei informazioa eta parte-hartzea** bermatzea, erakundean duten eraginaz jabe daitezen.
- **Etengabe hobetzea** kudeaketa-sistemen eraginkortasuna.
- Behar bezalako **aginte-maila ematea prozesu-arduradunei**, kudeaketa-sistemak mantendu ahal izateko.
- Behar bezala errespetatzea **Erantzukizun Sozialaren** arloko erreferentziako nazioarteko agiri eta hitzarmenetan jasotako oinarritzko eskubideak.
- **Erantzukizun Sozial Korporatiboa gure jarduera-eremuan sustatzea**, jasangarritasunari eragiten diogun inpaktua kudeatuz.
- **Gure jarduera sanitarioak ingurumenari eragiten dion inpaktua murriztea**, horretarako honela jokaturik: kutsadura prebenitzera bideratutako jokabideak sustatuz; baliabide naturalak modu jasangarrian erabiliz, batez ere eskasak direnak; neurri egokiak hartuz aldaketa klimatikoa murrizteko eta hari egokitzeko, baita biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko ere.
- **Pazientearen segurtasuna** arreta sanitarioaren funtsezko zutabeetako bat izatea, segurtasun-kulturari eusteari begira. **Gertaeren barne-jakinarazpena errazteko konpromisoa hartzea**, prozesuaren konfidentzialtasuna zainduz.
- Behar bezala ziurtatzea **infekzioen zaintza, prebentzioa eta kontrola**, horretarako infekzio-arrisku ezagunen eta potentzialen kausak identifikatuz, aztertuz, ebaluatuz eta tratatuz.
- **I+G+b eredu** baten alde egitea, pertsonak ardatz dituen sistema batekin, eta behar bezala sustatuz sormen-kultura eta elkarrizketa-guneak, horrela osasun-emaizak hobetzeko eta balioa sortzeko.

Helburu hauek malguak dira, urtero berrikusten dira eta ingurunearen eskakizunetara irekita daude. Eurretan oinarrituta zehazten dira kalitatearen arloko unean uneko lehentasunak.

Gure Interes Taldeekin garden jokatu nahi dugunez, konpromisoa hartzen dugu gure jarduerak eta emaitzak urtero Erantzukizun Sozial Korporatiboko gure memorian argitaratzeko.

ESIaren kudeaketan parte hartzen duten profesional guztien erantzukizuna da Kudeaketa Politika hau betetzea.

*Bilbon, 2019ko maiatzaren 24an*

**Eduardo Maiz Olazabalaga dk.**

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea